



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

## 1. Bidelagun izan (baita haurrena ere)

Haurrekin eta (beste adin bateko) gainerako pertsonekin modu osasungarrian aritzeko gako batzuk emateko asmoa eta helburua du ikastaroak. Zer da bestea errespetatzea eta onartzea, geure burua ukatu (behar izan) gabe. Nolako elkarriketa ezarri diferenteak diren bi persona-formen artean. Zein da haurren eta haurtzaroaren ezaugarrien berezitasuna.



Haurrekin harremana duen orentzat.



Izaera teorikoa izango du nagusiki. Baina hausnarketak toki handia izango duenez, bizipen-ikastaroa ere izango da, filosofikoa ere izango den neurrian.



### Ane Ablanedo Larrion

Irakaslea, neurosiaren prebentzioan aditua, heziketa librean aholkularia. Hizlaria eta artikulgilea.

Eman izena



### LANDUKO DIREN GAIAK

- Hazi: giza-garapenaren gakoak. Nola bilakatzen gara pertsona oso eta heldu.
- Hezi: haurrekin bakarrik egiten dugun ekintza. Zergatik?
- Heziketa: zer erauzi erlazionatzeko modu honi, benetan heziketa bilaka dadin.
- Eskola eta eskolako helduen izaera eta funtzioa haurtzaroko adin bakoitzean: 0-3/3-6/6-9/9-12.
- Bizi: haurrei bizitza ona eta osasungarria eskaini.
- (Bide)lagun izan: kalitatezko harreman osasungarrien eta osasuntsuen nolakotasuna. Ni, ni naiz. Zu, zu zara. Elkarrekin zer? Elkarri egokitu, gaintetik ezarri gabe, azpiratzen utzi gabe. Autoritatea, autoritarismoa.
- Aske izan=izan. Izatea laguntzen duten mugak eta izatea eragozten duten mugak. Muga, erronka gisa. Muga adierazi, mugak ezarri. Bestearen mugak onartu. Transgresioa eta iraultza.
- Ondorioak. Ala zigorren eufemismo? Gure ekintzen ondorioa eta ardura. Erreparazioa. Elkarbizitza arautzea.
- Baldintzapena. Elkar eragin, baina txantaiarik gabe, mehatxurik gabe.